


Plan Estrategikoa

2026-2030



Nola osatu dugu Plan Estrategikoa




Plan Estrategikoa ontzeko 2025ean zehar Talde Eragilean aurreko planaren balorazio kritikoa egin, oinarriak finkatu eta ildoak zehaztu eta landu dira. Urteko lehen Kontseilu Orokorrean proposamena, osatu, landu eta ekarpenak jaso dira baita. Azken emaitza, proposamen gisa eraman da abenduko Kontseilu Orokorrera bertan eztabaidatu, ekarpenak jaso, moldatu eta behin behineko plana bozkatu eta onartzeko. Aurrez, azaroko barne buletinarekin banatu da dokumentua, abendua bitarte elkarteko kidegoari ekarpenak egiteko bideak emanez.

Prozesua gaur egungo egoeraren azterketatik abiatu da, eta entzute ariketa zabal baten bidez identifikatu dira beharrak eta lehentasunak. Bidean aurreko plan estrategikoaren betetze-maila eta hutsuneak ere aztertu dira, zer funtzionatu duen eta zer sendotu edo birbideratu beharrean dagoen ikertuz. Horrela, plan hau ez da dokumentu hutsa, baizik eta ikaskuntzan oinarritutako bilakaera natural baten emaitza: aurreko zikloan jasotako esperientzia baliatuz, eragin handiagoa izango duten norabide eta ekintza-lerroak berrantolatu dira. Helburua ez da soilik plangintza edukitzea, baizik eta AEIKeren lanaren norabidea modu adostuan finkatzea, koherentzia, eraginkortasuna eta inpaktu soziala indartuz.



Planaren onarpena

Plan Estrategikoa Aiaraldeko Euskaigintza Kontseiluak onartu du abenduaren 10ean Laudion ospatutako Kontseilu Orokorrean, eta horrekin batera, hemen jasotzen diren lan-ildo eta helburuen egikaritzarekiko konpromiso kolektiboa hartu da. Onarpena ez da tramite administratibo hutsa, baizik eta norabide estrategiko partekatu baten baieztapena: dokumentu honen bidez, AIEKEk eta elkarteak osatzen duten eskualdeko eragileek hizkuntza-politikan eragin handiagoa lortzeko marko komun bat partekatzen dute. Plan hau dokumentu bizia izango da, eta urteko ebaluazioaren bidez eguneratu eta doitu da, erronka eta aukera berrietara egokituz.



Aurkibidea



1. SARRERA
2. DIAGNOSTIKOA
3. OINARRI ESTRATEGIKOAK
4. ILDO ESTRATEGIKOAK
5. EKINTZA-ILDOAK ETA KRONOGRAMA
6. EBALUAKETA



SARRERA



Testuingurua

2016an sortu zenetik, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak eskualdeko euskararen biziberritzean eragiteko lan egin du. Euskara Aiaraldeko nortasunaren eta kohesio sozialaren zutabe nagusietako bat da. Horregatik, beharrezkoa da euskararen erabilera eta transmisioa bermatuko dituzten baldintzak eta neurriak sortu eta modu planifikatuan zein eraginkorrean bideratzea.

Kontseiluaren misioa eskualdeko euskalgintzako eragileak artikulatzea eta instituzioei eskaerak zein proposamenak helaraztea da, euskararen erabilera soziala handitzeko eta belaunaldien arteko transmisioa indartzeko.

Plan estrategiko honek helburu nagusi hauek ditu: Aiaraldeko errealitate linguistikoa aztertuta helburu estrategiko eta jarduera-ildo nagusiak zehaztea, eta euskalgintza zein instituzioak norabide berean jartzea, euskararen aldeko urratsak modu koordinatuan egin daitezen.



DIAGNOSTIKOA

Testuingurua

Aiaraldeko euskararen egoeraren analisia egiteko, lehenik eta behin, eskualdeko testuingurua kontuan hartu behar da. Aiaraldea oso zabala da, eta herrien arteko egoera linguistikoa oso ezberdina denez, euskalgintzak ezinbestean hartu behar du aintzat aniztasun hori. Bestetik, herrien arteko komunikazioa ez da beti erraza, eta horrek ere zailtasunak ekartzen dizkio eskualde mailako dinamizazioari.

Oro har, euskararen ezagutza zabala bada ere, erabileran gabeziak sumatzen dira bizitzako hainbat eremutan: gizarte harremanetan, aisialdian, merkataritzan eta kultur kontsumoan. Gainera, etorri berrien presentzia gero eta handiagoa da, eta horrek erronka berriak dakartza: euskara ezagutzeko eta ikasteko protokoloak diseinatu eta martxan jartzea ezinbestekoa da transmisioa eta integrazioa bermatzeko.

Egoera horri modu sistematikoan heltzeko, AMIA (indarguneak, ahulguneak, aukerak eta mehatxuak) azterketa egin da, eta honako emaitzak jaso dira.

AMIA



I (indarguneak)	A (aukerak)	A (ahulguneak)	M (mehatxuak)
- Euskara identitate- eta kohesio-elementu indartsua da euskal hiztunen artean. - Hezkuntza sisteman euskararen presentzia zabaldua dago, ikasle gehienek D ereduan ikasten dutelako. - Eusalgintzako eragileen artean koordinaziorako borondatea eta esperientzia badago.	- Udal eta erakunde publikoek euskararen aldeko planak dituzte eta elkarlan mahai bat dago sortuta. - Euskara sustatzen duten elkarte eta entitateen artean elkarlana egon daiteke euskararen presentzia indartzeko.	- Kale-erabilera eta aisialdiko eskaintza ez dira hezkuntza mailako euskararen presentziarekin bat etortzen. - Aiaraldea eskualde zabala da, eta herrien arteko egoera linguistikoa oso ezberdina da; horrek erronka gehigarriak sortzen dizkio eusalgintzari. - Baliabide ekonomiko eta pertsonalak oso mugatuak dira.	- Gazteengan erdaren nagusitasuna indartzen ari da sare sozialetan eta aisialdiko espazio informaletan. - Eskualdeko biztanleriaren aldaketa demografikoak (etorkinen etorrera, belaunaldi berrien joerak) euskararen transmisioa arriskuan jar dezake. - Instituzioen menpekotasun ekonomikoa dela eta, proiektuen iraunkortasuna zalantzan gera daiteke.

OINARRI ESTRATEGIKOAK



Plan estrategiko honek zenbait balio eta printzipio gidari hartzen ditu abiapuntutzat: herritarren parte-hartzea eta auzolana sustatzea; berdintasuna eta inklusibitatea, euskarazko bizipenak pertsona guztientzat eskuragarri eginez; eraginkortasuna, baliabide mugatuak modu adimentsuan erabiliz; eta lankidetzak, eskualdeko eragileen arteko sinergiak indartuz.

Kontseiluaren misioa da Aiaraldeko euskararen biziberritzean eragitea, euskalgintzako eragileak artikulatuz eta instituzioei proposamenak helaraziz, euskararen erabilera soziala handitzeko eta belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko.

Ikuspegia hau da: Aiaraldea izan dadila euskaraz bizi ahal izateko eskualdea, non hizkuntza aukerak ez duen baldintzatzen herritarren bizi-kalitatea, aukerak eta parte-hartzea.

Horretarako, lau helburu estrategiko nagusi planteatzen dira:

1. Euskararen erabilera soziala handitzea, bereziki gazteen eta aisialdiko esparruan.
2. Kultur eta hezkuntza ekimenetan euskararen presentzia bermatzea eta zabaltzea.
3. Euskalgintzako eragileak eta instituzioak sarean lan egitera bultzatzea.
4. Komunikazio eta sentsibilizazio kanpainen bidez, euskararen aldeko jarrera soziala indartzea.

ILDO ESTRATEGIKOAK



Diagnostikoan azaldutako erronkak eta aukerak kontuan hartuta, Aiaraldeko Euskaigintza Kontseiluak zazpi ildo estrategiko zehaztu ditu. Ildo horiek dira gure jardunaren ardatz nagusiak eta bakoitzak helburu zehatzak izango ditu, eskualdeko aniztasun soziolinguistikoa eta baliabideen mugak aintzat hartuta.

- **Barne eraketa:** Kontseiluaren funtzionamendua eta antolaketa sendotzea, baliabide pertsonal eta ekonomikoak modu eraginkorrean kudeatuz.
- **Instituzioak:** Tokiko eta eskualdeko erakunde publikoekin harremanak indartzea, euskararen aldeko politiketan eragiteko eta euskararen presentzia bermatzeko.
- **Hezkuntza:** Hezkuntza komunitatearekin elkarlanean, euskararen transmisioa eta erabilera sustatzea, eskolaz kanpoko eremuetan ere jarraipena izan dezan.
- **Gazteak:** Gazteen artean euskararen erabilera soziala sustatzea, euren interes eta espazioetan euskarak toki natural eta erakargarria izan dezan.
- **Aisialdia:** Euskarazko aisialdi eskaintza bermatzea eta zabaltzea, haur, gazte eta helduen beharrei erantzunez.

ILDO ESTRATEGIKOAK



- **Kultura:** Tokiko kultur eragileekin elkarlanean, euskarazko kultur sorkuntza eta kontsumoa areagotzea.
- **Beste hizkuntza eta kulturak:** Etorri berrien harrera eta integrazioa euskaratik bideratzea, hizkuntza-aniztasuna aberastasun gisa ulertuz eta euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko protokoloak instituzioetan sortzea bultzatzea eta horretan bidelagun izatea.

Ildo estrategiko hauek osotasun batean ulertu behar dira, elkarren osagarri direlako. Guztien helburua da euskarak Aiaraldean presentzia sendoa, erabilera erreal eta prestigioa izatea, gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat.

ILDO ESTRATEGIKOAK



Diagnostikoan jasotako erronkei erantzuteko eta euskararen erabilera soziala indartzeko, Aiaraldeko Euskaigintza Kontseiluak zazpi ildo estrategiko zehaztu ditu. Ildo horiek plan estrategikoaren zutabe nagusiak dira, eta bakoitzak eskualdeko euskararen normalizazioan ekarpen espezifikoa egingo du.

Helburua ez da jarduera solteak pilatzea, baizik eta ikuspegi bateratu bat eraikitzea: barne antolaketa indartsua, instituzioekiko eraginkortasuna, hezkuntza komunitatearen inplikazioa, gazteen hizkuntza ohituretan eragitea, euskarazko aisialdi eta kultur eskaintza sustatzea eta, aldi berean, eskualdeko hizkuntza-aniztasuna euskararen biziberritzearen alde baliatzea.

Ildo estrategiko bakoitzak helburu orokorrak eta helburu zehatzak jasoko ditu. Horrela, plan estrategikoak norabide argia eta neurgarria izango du, eta epe ertain eta luzerako ekintza zehatzetan gauzatuko da.

BARNE ERAKETA

Testuingurua

Aiaraldeko Euskaigintza Kontseilua eskualde mailako eragileen bilgune eta ahots bateratzailea da, euskararen biziberritzea sustatzeko lanean ari dena. Jarduera eraginkorra eta iraunkorra izateko, ezinbestekoa da barne kohesioa eta antolaketa egokia bermatzea.

Horretarako, barne eraketa ildoak azpimarratzen du:

- Egituraren sendotzea: Antolaketa eta erabaki-hartze eredua zehaztea eta kideen parte-hartzea erraztea.
- Funtzionamendu gardena eta koordinatua: barne komunikazioa eta erabakiak hartzeko prozedurak hobetzea.
- Iraunkortasuna eta baliabideen kudeaketa: aurrekontu mugatuak modu estrategikoan erabiltzea izango da ardatza, baina horrekin batera, baliabide gehiago lortzeko bideak aktiboki bilatuko dira, proiektuen egonkortasuna eta hazkundera bermatzeko.
- Kide sarearen indartzea: elkarteen eta norbanakoen arteko konfiantza eta motibazioa sendotzea.
- Lan egiteko estilo propioa: elkarlana, horizontaltasuna eta konfiantza giroa lehenestea, hizkuntza politikak hobetzeko lankidetzak sustatuz.



BARNE ERAKETA



HELBURU OROKORRA

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren barne egitura eta funtzionamendua sendotzea, kideen arteko kohesioa, gardentasuna eta eraginkortasuna bermatuz.

Helburu zehatzak:

1. Antolaketa eta erabaki-hartze eredua zehaztea
2. Barne komunikazioa indartzea
3. Baliabide ekonomikoen eta giza baliabideen kudeaketa hobetzea eta gehiago bilatzeko bideak aktiboki bilatzea.
4. Kideen kohesioa eta motibazioa sendotzea
5. Lan egiteko kultura propioa garatzea

BARNE ERAKETA



Jarduera	Lotutako helburua	Epea (2026–2030)	Baliabideak	Adierazleak
Kontseiluaren funtzionamendua arautzen duen barne dokumentua idaztea	1	2026	Lantaldea, dinamizatzaile bat	Dokumentua onartuta eta kideen artean zabalduta
Bileren egutegi iraunkorra ezartzea	1	Urtero (2026–2030)	Kideen denbora, koordinazio tresnak	Talde eragilea eta kontseilu orokorra
Barne komunikaziorako tresna digitala (drive, intranet, talde app)	2	2026–2027	Lizentzia digitalak, dinamizatzailea	Kideen %80k erabiltzea
Hilabetero barne buletina bidaltzea	2	Urtero (2026–2030)	Dinamizatzailearen denbora	Urtean 10–12 buletin bidali
Aurrekontuaren urteko planifikazioa egitea eta aurkeztea	3	Urtero (2026–2030)	Diruzaintza arduraduna	Urteroko aurrekontua onartuta / partekatu
Bazkide eta babesle gehiago lortzea	3	2026	Diruzaintza arduraduna	Enpresen babesletza eta bazkideak
Kideen arteko komunikazioa sendotzea. Banakako bilerak	4	Urtero (2026–2030)	Dinamizatzailea / gune bat	AIEKEren lana birpasatu, kideen parte hartzea egonkortu
Balio partekatuen gida adostea eta komunikatzea	5	2028	Dinamizatzaileak, kideak	Dokumentua sortu eta aplikatuta
Instituzioekin eta beste eragileekin elkarlanerako protokoloa idaztea	5	2029–2030	Lantaldea, koordinatzailea	Protokoloa onartua eta lehenengo aplikazio

INSTITUZIOAK



TESTUINGURUA

Aiaraldeko Euskaigintza Kontseiluaren lanaren ardatz nagusietako bat instituzioekin harremanak dira. Erakunde publikoek duten eragin eta gaitasun instituzionala kontuan hartuta, ezinbestekoa da haiekin elkarlanean aritzea, euskararen aldeko politikak indartzeko eta neurri eraginkorrak martxan jartzeko. Instituzioekin lan egiteak bi dimentsio uztartzen ditu: alde batetik, euskararen normalizazioan urrats zehatzak bultzatzeko elkarlana; eta bestetik, instituzioen hizkuntza-politikan eragiteko presioa eta proposamenak.

Helburua da eskualdeko udalekin eta bestelako erakundeekin harreman estrategikoak sendotzea, euskararen aldeko konpromisoak zabaltzea eta politika publikoetan euskarak dagokion tokia izatea bermatzea. Horretarako, ezinbestekoa da euskara teknikari eta eragileekin koordinazio estua izatea, praktika onak partekatzea, hizkuntza eskubideak defendatzea eta eskualde mailako proposamen zehatzak adostea.

INSTITUZIOAK



Instituzio ildoak helburu bikoitza du: batetik, udal eta erakundeekin benetako aliantza eraginkorrak eraikitzea; eta bestetik, konpromiso publikoen jarraipena eta gardentasuna bermatzea, hizkuntza-politika ez dadin deklarazio sinboliko hutsean geratu.

Horretarako, lan hau ez da soilik koordinazio teknikoan oinarrituko, baizik eta eragin politiko eta sozialeko dimentsioa ere txertatuko du: jaietan, hauteskunde testuinguruan, edo hizkuntza eskubideen ikusgarritasunean.

Gainera, instituzio arteko lana Euskal Herriko mailako euskaigintza sarearekin lotuta ulertzen da, Aiaraldeko lana isolatuta gera ez dadin eta eskala desberdinen artean koherentzia eta indar metaketa egon dadin.



INSTITUZIOAK

HELBURU OROKORRA 1

Erakunde publikoekin harreman estrategiko eta eraginkorrak sendotzea, AIEKEren papera eta tokiko hizkuntza-politikan eragina indartzeko.

HELBURU OROKORRA 2

Udal eta erakundeen konpromiso maila modu sistematikoan neurtu eta eguneratzea (BWC/behatokia), gardentasuna eta erantzukizun partekatua bermatuz.

HELBURU OROKORRA 3

Euskal Herriko mailako euskaigintza erakundeekin aliantza eta artikulazioa bermatzea, tokiko eragina eskala zabalagoko dinamika sozial eta politikoekin konektatuz.

INSTITUZIOAK



Helburu zehatzak:


1. Euskara teknikarien mahaia dinamizatzea eta urteko lan-plana koordinatzea.
 2. Udal guztiekin harremana eta proposamen formalak mantentzea.
 3. Udal eta erakundeen konpromisoen jarraipena eta ikusgarritasuna bermatzea (BWC / semaforoa).
 4. Egoera estrategikoetan eragitea: jaiak / hizkuntza eskubideak eta hauteskunde testuingurua (Hautagai Euskaldunak)
 5. EHko Euskaigintza Kontseiluarekin lotura eta aliantza aktiboa bermatzea.
 6. Udaletan hizkuntza-planak ezarri eta martxan daudenen jarraipena egitea.
 7. Mahaitik eta jarraipenetik abiatuta diagnostiko eta proposamen estrategikoak egitea.
 8. Zikloaren ebaluazioa eta berriztapen politikoa ixtea (2030).
- 1–2 = harreman estrukturalak, 3–5 = eragina eta aliantzak, 6–8 = sistematizazioa eta eraldaketa

INSTITUZIOAK



Jarduera	Lotutako helburua	Epea	Baliabideak	Adierazleak
Euskara teknikarien mahaia dinamizatzea (bi hilean behin) eta urteko lan-plana adostea	1	2026–2030 (bi hilean behin)	Koordinazioa, bilerak	Planak eta aktak eguneratuta
Udal guztiekin harremana mantentzea (bisitak / bilerak / komunikazio zuzena)	2	Urtero	Denbora eta bilerak	%100 udalekin kontaktua
Euskara normalizazioari buruzko proposamen formalak bidaltzea udalei	2	Urtero (gutxienez 1)	Proposamen idatziak	Proposamen kopurua eta erantzuna
BWC / konpromiso publikoen jarraipen sistema eguneratzea eta zabaltzea	3	Urtero	Datu jasoketa	Jarraipen txostena eta publikotasuna
Jai eta espazio publikoetako hizkuntza-irizpideetan eragitea	4	2026-2030	Bilera eta koordinazioa	Irizpideak adostuta / aplikazioa
Hautagai Euskaldunak dinamika (2 fase):konpromisoak aurretik + ikusgarritasuna kanpainan	4	2027	Sare-lana eta bilerak	Hautagai kopurua / konpromiso publikoak
EHko Euskaingintza Kontseiluarekin lotura eta koordinazio iraunkorra	5	Urtero	Koordinazio bilerak	Parte hartze eta jarraitutasuna
Udaletan hizkuntza-planak egoki ezartzen direla bermatzea	6	Etengabe	Aholkularitza eta jarraipena	Planen ezarpena / kalitatea
Diagnostiko estrategikoa eta proposamen berriak	7	2027 eta 2030	Dokumentazioa	Diagnostiko + proposamen aurkeztua
Zikloaren ebaluazioa eta berriztapen politikoa	8	2030	Ebaluazio lana	Balantzea eta hurrengo ziklorako oinarriak

HEZKUNTZA



Testuingurua

Hezkuntza da euskararen transmisiorako eta erabilera soziala bermatzeko eremu nagusietako bat. Eskualdean haur eta gazte gehienek euskaraz ikasi arren euskalduntzea ez dago bermatuta egun. Horregatik, ezinbestekoa da hezkuntza-komunitate osoa (ikasleak, familiak eta irakasleak) inplikatzeari, euskararen aldeko jarrera aktiboa, atxikimendua eta erabilera esanguratsua sustatzeko. Etorri berriek dakarten egoera berria kontuan hartu eta erronkari erantzuteko bideak, baliabideak eta estrategiak landu behar dira.

Helburua ez da soilik ikastetxeetan euskararen presentzia bermatzea eta ikasleen euskalduntzea bermatzea, baizik eta eskolatik harago ere haur eta gazteen bizipenetan hizkuntza ohitura sendoak errotzea. Horretarako, ezinbestekoa da familiak eta ikastetxeak aliatu bihurtzea, erreferente euskaldunak gazteengana gerturatzea eta euskararen prestigioa indartzea, eta instituzioen inplikazioa baliabideak eta politika egokiak bideratuz.

HEZKUNTZA



Helburu orokorra

Euskararen erabilera eta transmisioa hezkuntza-esparru guztietan sustatzea, haurren eta gazteen garapen linguistiko eta emozionala kontuan hartuz, familiek, ikasleek eta eragileek euskararekiko jarrera eta portaera aktibo eta positiboa izan dezaten eta euskararekiko lotura afektiboa indartuz..

Helburu zehatzak

1. Haurren lehen urteetatik euskararen presentzia bermatzea, familiei euskarazko harremanak lantzeko baliabideak eskainiz (Gurasoleku).
2. Euskararen transmisioan gurasoen papera indartzea, kontzientzia linguistikoa eta praktikotasuna landuz (Gurasoleku).
3. Ikasleen artean euskararen erabilera esanguratsua sustatzea, euren interesekin lotutako ekimenen bidez (Memealdia, Kulturizketak, Gazte Topaketa...).
4. Ikasleek erreferente euskaldunak ezagutzea eta horiekin harremanak izatea, motibazioa eta prestigioa handitzeko (Kirolariak ikastetxeetan / Kulturizketak).
5. Hezkuntza-komunitatean hizkuntza-ohiturei buruzko hausnarketa erraztea, dinamika parte-hartzaile eta bizipenetatik abiatuz (galdetegiak, foro dinamikoak...).

HEZKUNTZA



Helburu zehatzak

6. Gazteen euskarazko sorkuntza eta adierazpena garatzea, tresna digitalak eta kultur adierazpenak erabiliz.

7. "Euskara gabe ez gara" manifestua inplementatzea eta sozializatzea, balio komunitario gisa.

8. Ikastetxeen arteko lankidetzak sustatzea, Hezkuntza Foroa dinamizatuz.

HEZKUNTZA



Jarduera	Lotutako helburua	Epea	Baliabideak	Adierazleak
Gurasoleku programa martxan jartzea eta familiei baliabideak eskaintzea	1	Urtero (2026–2030)	Dinamizazioa	Saio kopurua / parte-hartze tasa
Gurasoen kontzientzia linguistikoa eta transmisioaren rola indartzea (Gurasoleku)	2	Urtero (2026–2030)	Formakuntza / dinamika	Balorazio kualitatiboa
Ikasleen interesetan oinarritutako ekimenak (Memealdia, Kulturrizketak, Gazte Topaketa...)	3	2026–2030	Koordinazioa / dinamika	Parte-hartzaile kopurua / erabileran eragina
Erreferente euskaldunak ikastetxeetara ekartzea (Kirolariak, sortzaileak...)	4	2026–2030	Harreman sareak	Topaketa kopurua eta jasotako balorazioa
Hizkuntza-ohiturei buruzko galdetegiak eta foro dinamikoak	5	2027–2030	Tresnak / dinamizazioa	AHC edo antzeko jarraipen datuak
Gazteen euskarazko sorkuntza eta adierazpena (memeak, bideoak, podcast-ak...)	6	2027–2030	Sorkuntza laguntza	Sortutako piezak eta jarraipena
“Euskara gabe ez gara” sozializazioa eta praktikara eramatea	7	2026–2028	Komunitate-lana / komunikazioa	Ikastetxeetako presentzia / ekimen propioak
Hezkuntza Foroa dinamizatzea eta ikastetxeen arteko lankidetzaren sustatzea	8	2026–2030 (3 aldiz/urte)	Bilera eta koordinazioa	Foro saio kopurua eta zentro parte-hartzaileak

GAZTEAK



Testuingurua

Euskara biziberritzeko prozesuak gazteen parte-hartzea ezinbesteko du. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren erronka nagusietako bat da gazteak euskaraz bizitzeko aukerak sortzea, euren interes eta ohiturekin bat eginez. Gazteen artean euskararen transmisioa eta erabilera esanguratsua sustatu behar da, haien eguneroko jardueretan eta harremanetan hizkuntza modu naturalean txertatuz.

Aiaraldean euskara hezkuntza sisteman oso presente dagoen arren, gazteen artean erabilera urria da. Eremu informalean, aisialdian eta sare sozialetan euskararen presentzia ahula da, eta gazte askoren hizkuntza-ohituretan erdararen nagusitasuna agerikoa da. Horregatik, beharrezkoa da gazteen bizitzako eremuetan euskarak balio erantsia eta erakargarritasuna izatea bultzatzea.



GAZTEAK

Helburu orokorra

Gazteen hizkuntza-ohituretan euskararen erabilera praktikoa eta bizia sustatzea, euren eguneroko jardueretan eta interesguneetan euskara modu naturalean txertatuz.

Helburu zehatzak

1. Gazteei zuzendutako tailer, topaketa eta dinamiken bidez, euskararen erabilerari buruz hausnartzeko aukera ematea, euren egoera eta erronkei erantzunez.
2. Gazte eragileekin harremanak bultzatzea hausnarketak partekatzeko, elkar ezagutu eta elkarlanerako bideak bilatzeko euskararen erabilera bultzatzeko xedez.
3. Gazte gehiago biltzea Kontseilura, dinamika propioak sortzeko eta gazteen parte-hartzea sendotzeko.
4. Gazteei zuzendutako eskaintzan euskarak zentralitatea izatea, udal, eskola edo elkarte mailako programazioan.
5. Abian dauden gazte proiektu interesgarriak babestea eta bultzatzea (adibidez, podcast baten sorrera edo gazteek eurek abiatutako ekimenak).

GAZTEAK



Jarduera	Lotutako helburua	Epea	Baliabideak	Adierazleak
Gazteei zuzendutako tailerrak, topaketak eta hausnarketa-dinamikak	1	2026–2030	Dinamizazioa eta espazioak	Tailer/topaketa kopurua eta parte-hartzea
Gazte eragileekin harremanak bultzatzea (ezagutza + elkarlana + konplizitateak)	2	2027–2029	Harremanetarako denbora	Aliantza edo eragile kopurua
Gazte sare berria abiatzea eta sendotzea(Kontseilura hurbilketa eta protagonismoa)	3	2027	Aktibazioa / kanala	Saretutako gazte kopurua
Programazioan euskararen zentralitatea bermatzeko lanketa (udal, eskola eta elkarte mailan)	4	2026–2030	Koordinazioa eta komunikazioa	Euskara lehenesten duten programen kopurua
Gazteen proiektu interesgarriak babestu eta bultzatzea (podcast, sorkuntza, ekimen propioak...)	5	2027–2030	Laguntza arina / orientazioa	Sortutako proiektuak edo ekimen berriak

AISIALDIA



Testuingurua

Aisialdia eremu giltzarria da euskararen erabilera soziala sustatzeko. Haur eta gazteek eskolatik kanpoko denbora tarte zabala ematen dute aisialdian, eta horrek aukera ematen du hizkuntza-ohituretan eragiteko. Aiaraldean badira euskarazko aisialdi eskaintza batzuk, baina ez dira beti nahikoa ikusgarriak, eskuragarriak eta erakargarriak. Gainera, herrien arteko egoera ezberdina da, eta askotan zailtasuna dago eskualde osoari begira eskaintza koherentea osatzeko.

Horregatik, beharrezkoa da euskarazko aisialdi eskaintzaren ikusgarritasuna eta kalitatea handitzea, eskaintza osoa ezagutaraztea eta eragileekin zein instituzioekin elkarlana indartzea.

Aisialdiaren bidez euskararekiko atxikimendua, ohitura sozialak eta identitate linguistikoa eraikitzen dira, eta horregatik plan estrategiko honek lehentasuntzat hartzen du kalitatezko eta irisgarritasun-irizpideak betetzen dituen euskarazko eskaintza bermatzea.

AISIALDIA



Helburu orokorra

Euskarazko aisialdi eskaintzaren ikusgarritasuna, eskuragarritasuna eta kalitatea handitzea eskualdean, eskaintzaren jarraipena eginez, presio sozial eta instituzionala sustatuz, eta eragileak identifikatuz.

Helburu zehatzak

1. Euskarazko aisialdi eskaintzen gida sortzea eta urtero eguneratzea, ahalik eta hedapen handiena bermatuz. Euskaraz eta debalde den aisialdi eskaintza bat bultzatu eta bermatzea eskualdean.
2. Aisialdi eskaintzaren egoerari buruzko azterketa laburra osatzea eta etengabe eguneratzea.
3. Aisialdi-eragileei gomendio eta hizkuntza-irizpideak helaraztea, euren eskaintzan euskara txertatzeko neurri erraz eta praktikoekin.
4. Udalekin aisialdi eskaintzan euskararen aldeko neurriak negoziatzea, kontratazioetan eta programazioan hizkuntza-irizpide berriak txertatzeko.
5. Gida eta azterketaren inguruko sentsibilizazio-kanpaina publikoa egitea, herritarren parte-hartzea bultzatuz.
6. Eskola-komunitateari gida helaraztea eta lankidetzaz sustatzea, euskarazko aisialdi eskaintzaren aldeko diskurtsoa sendotuz.

AISIALDIA



Jarduera	Lotutako helburua	Epea	Baliabideak	Adierazleak
Eskualdeko aisialdi-eskaintzaren egoerari buruzko azterketa laburra osatzea eta urtero eguneratzea	1,2	Urtero	AEKE koordinazioa, datuen bilketa	Azterketa eguneratua, bertsio kopurua
Aisialdi-eragileentzako gomendio eta hizkuntza-irizpide praktikoak prestatu eta zabaltzea	3	2026–2027 (prestaketa), gero urtero zabalketa	Dokumentua, formakuntza saioak	Gida sortua, eragileei bidalitako kopurua
Udalekin negoziatzea aisialdi programazio eta kontratazioetan hizkuntza-irizpideak txertatzeko	4	Etengabe	Bilerak, proposamen idatziak	Bilerak urtero, sinatutako akordio kopurua
Azterketa eta gida oinarri hartuta sentsibilizazio-kanpaina publikoa egitea	5	2027 eta 2029	Komunikazio baliabideak, sare sozialak, ekitaldiak	Kanpaina kopurua, parte-hartzaile kopurua
Eskola-komunitateari gida helarazi eta lankidetzaz sustatzea (eskolako zuzendaritza, guraso-elkarteak...)	6	2026ko irailetik aurrera	Gida, bilerak, dinamizatzailerak	Ikastetxe parte-hartzaileen kopurua, bilerak

KULTURA



Testuingurua

Kultura da euskararen biziberritzean eragin handiena duen eremuetako bat, bai sortzaileei eta kultur eragileei dagokienez, bai herritarrei eskaintzen zaizkien kontsumo-aukerei dagokienez. Aiaraldean euskarazko kultur sorkuntza eta ekimenak badaude, baina askotan ez dute behar besteko ikusgarritasunik, ezta instituzio eta programatzaileen babesik ere. Horrez gain, herrietako jai eta ospakizunek eragin zuzena dute hizkuntza-ohituretan eta euskararen prestigioan, eta horietan euskararen presentzia indartzea funtsezkoa da.

Kontseiluaren erronka da, alde batetik, euskarazko kulturaren ikusgarritasuna eta kontsumoa handitzea, eta bestetik, kultur eragile eta programatzaileekin lan egitea, euskarak kultur jardueretan toki nagusia izan dezan.



KULTURA

Helburu orokorra

Euskarazko kultura bultzatu eta kultur eragileak euskarara ekartzea, euskararen erabilera kultur jardueretan sustatuz eta bermatuz.

Helburu zehatzak

1. Euskarazko kulturari ikusgarritasuna ematea, bereziki Aiaraldeko sorkuntza eta sortzaileei.
2. Euskarazko kultura kontsumoa bultzatzea, herritarren artean aukera erakargarriak eskainiz.
3. Kultur programatzaileetan eragitea (udalak, antzokiak, jaiak...), analisi eta proposamen zehatzetatik abiatuta.
4. Tokiko euskarazko sortzaile eta kultur eragileen parte-hartzea sustatzea: sortzaile eta eragileekin kontaktuak egin eta parte hartzeko gonbita bideratu, tokiko sorkuntza egitasmoetan txertatzea (Euskararen Eguna, jaiak, ekitaldiak...) eta sorkuntzaren ikusgarritasuna indartzea sare sozialen eta komunikazioaren bidez.
5. Herrietako jai eta ospakizunetan euskararen presentzia eta hizkuntza eskubideak bermatzea, jai batzordeekin elkarlanean.
6. Euskararen aldeko sentibilizazioa kultur jardueren bidez indartzea, herritarren parte-hartzea eta hizkuntza-irizpideen erabilera sustatuz.

KULTURA



Jarduera	Lotutako helburua	Epea	Baliabideak	Adierazleak
Aiaraldeko euskarazko sortzaileen mapa eta ikusgarritasun-kanpaina egitea	1, 4	2027-2028	Datu bilketa, komunikazio baliabideak	Sortzaileen zerrenda osatua, ikusgarritasun-kanpainak
Euskarazko kultur eskaintza sustatu (kontzertuak, antzerkia, zinema...) herritarrei aukera erakargarriak eskainiz	2	Urtero	Aurrekontua, eragile kulturalen elkarlana	Ekitaldi kopurua, parte-hartzaileen kopurua
Kultur programatzaileekin (udalak, antzokiak, jai batzordeak...) bilerak eta proposamen idatziak aurkeztea	3, 5	Etengabe	Koordinazioa, dokumentazio lana	Bilerak, aurkeztutako proposamenak
Tokiko sortzaileak kultur ekimenetan txertatzea eta euren lana sare sozialetan zabaltzea	1, 4	Urtero	Komunikazio kanalak, harreman zuzena	Tokiko sortzaile parte-hartzaileen kopurua, sare sozialetako presentzia
Herrietako jai eta ospakizunetan hizkuntza-irizpideak lantzea eta euskararen presentzia bermatzeko protokoloak adostea	5	Etengabe	Jai batzordeekin lankidetzatza, gida praktikoa	Irizpideak onartu dituzten jai kopurua, argazkiak, jaien analisisa
Kultur jardueretan euskararen aldeko sentsibilizazio-kanpainak egitea (ekitaldiak, ikus-entzunezkoak, kartelak...)	6	2027 eta 2029	Komunikazio baliabideak, diseinu grafikoa	Kanpaina kopurua, herritarren inplikazioa

BESTE HIZKUNTZA ETA KULTURAK



Testuingurua

Aiaraldean azken urteotan gero eta presentzia handiagoa dute migratzaileek eta kultura anitzeko herritarrek. Honek aberastasuna dakar, baina baita erronkak ere: hizkuntza-aniztasunak askotan euskararen erabileran zailtasunak sortzen ditu, batez ere harreraren eta integrazioan. Euskarak, ordea, aukera paregabea eskaintzen du kultura arteko komunikaziorako eta kohesio sozialerako zubi izateko.

Euskaigintzak erronka bikoitza du: batetik, migrante eta hizkuntza-anitzeko komunitateekin harremanak sortu eta konfiantza lantzea; eta bestetik, euskararen bidez parte-hartzea, inklusioa eta elkarbizitza indartzea.

BESTE HIZKUNTZA ETA KULTURAK



Helburu orokorra

Migranteen parte-hartzea indartzea euskararen bidez, haien jatorrizko hizkuntzak balioan jarriz eta euskara kultura arteko harremanetarako zubi gisa sustatuz.

Helburu zehatzak:


1. Kultura anitzeko herritarren eta elkarten arteko konfiantzazko harremanak eraikitzea.
 - Banako eta komunitateekin harreman zuzena landu eta eragile / pertsona horien proposamenak entzun eta haiek euskaletzarekin konektatu.
2. Euskara harrera hizkuntza gisa indartzeko baliabide eta ekimenak garatzea.
 - Hizkuntza anitzeko familientzako euskarazko oinarrizko baliabideak sortu (hiztegiak, bideoak...).
3. 16 urte beherako gazteak/haurrek euskalduntze prozesuan laguntzeko udalek hitzarmenak sortzeko lankeeta egin.
4. Udaletan harrera protokoloak sortzeko eta inplementatzeko elkarlana sustatu

BESTE HIZKUNTZA ETA KULTURAK




Jarduera	Lotutako helburua	Epea	Baliabideak	Adierazleak
Migrante komunitate eta elkarteekin harreman zuzena lantzea: topaketak, elkarrizketak eta konfiantza giroa sortzea	1	Etengabe	Dinamizatzaileak, topaketa espazioak	Bilera/topaketa kopurua, parte-hartzaile kopurua
Migranteen proposamenak jaso eta euskalgintzarekin konektatzea (bitartekaritza lana)	1	Urtero	AEKE koordinazioa, sare-lana	Jaso eta txertatutako proposamen kopurua
Hiztegi txikiak, bideo laburrak eta baliabide praktikoak sortu familientzat (harrera hizkuntza gisa euskara indartzeko)	2	2026–2027	Itzultzaileak, diseinatzaileak, komunikazio baliabideak	Sortutako material kopurua, banaketa
Udalekin lankidetza abiatu 16 urtetik beherako gazteen euskalduntze-prozesuan laguntzeko hitzarmenak sortzeko	3	2027–2028	Udalekin bilerak, proposamen idatziak	Sinatutako hitzarmen kopurua
Harrera protokoloak sortzeko eta inplementatzeko udaletan proposamenak egitea	4	2026–2029	Dokumentazioa, bilerak, protokolo gida	Harrera protokoloak onartu dituzten udal kopurua


KRONOGRAMA




KRONOGRAMA




KRONOGRAMA



KRONOGRAMA




KRONOGRAMA



KRONOGRAMA



KRONOGRAMA





Ildoa / Urtea	2026	2027	2028	2029	2030
BARNE ERAKETA	• Barne funtzionamendua egonkortzea • Parte-hartzea eta komunikazioa bermatzea • Barne tresna eta egiturak martxan jartzea	• Dinamika eta antolaketa maila finkatzea • Erabakietan gardentasun handiagoa • Barne komunikazioa doitzea	• Balio partekatuak adostea • Talde-kohesioa indartzea • Barne egituraren koherentzia berrikustea	• Barne kultura sendotzea • Rol eta ardurak egonkortzea	• Ebaluazio orokorra • Hurrengo ziklorako oinarriak finkatzea
INSTITUZIOAK	• Harremanak egonkortzea • BWC jarraipena abiaraztea • EH mailako lotura aktiboa	• Hautagai euskaldunen konpromisoa bermatzea • Diagnostikoa eta proposamen instituzionala • Hizkuntza-planen ezarpena indartzea	• EHko sarearekin aliantzak sakontzea • Udaletatik harago eragileak txertatzea • Hizkuntza-irizpideak sistematizatzea	• Konpromiso publikoak finkatzea • Gardentasun eta jarraipena handitzea	• Ebaluazioa eta emaitzen ikusgarritasuna • Ziklo berriaren negoziazioa
HEZKUNTZA	• Gurasolekua sendotzea • Ikastetxeetan euskararen presentzia hastea • “Euskara gabe ez gara” sozializazioaren hasiera	• Erabilera esanguratsua handitzea • Erreferente euskaldunen presentzia • Lehen foro eta jarraipen tresnak	• “Euskara gabe ez gara” sakontzea • Sorkuntza digitala sustatzea • Ikastetxeen arteko lotura sendotzea	• Portaera aktiboak eta praktika arrakastatsuak finkatzea • Komunitate-lotura indartzea	• Ebaluazio orokorra • Hurrengo ziklorako norabideak



Ildoa / Urtea	2026	2027	2028	2029	2030
GAZTEAK	• Diagnostikoa eta entzute aktiboa • Parte-hartzerako lehen espazioak kokatzea • Harremanetarako oinarriak prestatu	• Gazte sare berria abiatzea • Gazte eragileekin lehen aliantzak • Euskarazko espazio erakargarriak sortzea	• Aliantzak eta sareak sakontzea • Proiektu eta sorkuntza propioak sendotzea • Gazteen protagonismoa handitzea	• Sareak finkatzea • Ekimenak komunitatean txertatzea	• Gazteen ibilbidearen ebaluazioa • Ondorengo lidergoen prestaketa
AISIALDIA	• Eskaintzaren azterketa eta mapa • Irisgarritasuna oinarri moduan txertatzea • Eragileekin lehen kontrasteak	• Gida eta gomendioak zabaltzea • Aisialdiaren gaineko sentsibilizazioa • Aliantzak sortzea	• Udalekin hizkuntza-irizpideak adostea • Eskaintza egonkortu eta ikusgarri egitea • Aisialdia euskaldun bizigarri moduan sendotzea	• Praktikan finkatzea • Komunitate inplikazioa handitzea	• Ebaluazio orokorra • Berrikuntza-ildoak prestatu
KULTURA	• Tokiko sortzaileen mapa eta ikusgarritasuna • Kultur eskaintza euskaraz sustatzea • Kultur sareak osatzen hastea	• Programazioan euskararen presentzia handitzea • Sortzaileekin aliantzak handitzea • Kultur komunitatearekin loturak sendotzea	• Jai eta ekimenetan euskararen pisua handitzea • Espazio euskaldunak naturalizatzea • Tokiko sorkuntza komunitatearekin uztartzea	• Kultura eskaintza eskualde mailan sendotzea • Eragin instituzionala handitzea	• Ebaluazioa eta norabide berriak
BESTE HIZKUNTZA ETA KULTURAK	• Harreman eta konfiantza lotzea • Euskara harrera-hizkuntza moduan kokatzea • Lehen baliabideak sortzea	• Parte-hartze kanalak aktibatzea • 16 urtetik beherakoentzako euskalduntze aukerak lantzea • Aniztasuna ikusgarri egitea	• Harrera protokoloak diseinatzea • Komunitate arteko loturak sendotzea • Tokiko inplikazioa bermatzea	• Harrera praktikak egonkortzea • Erakundeen konpromisoa handitzea	• Ebaluazioa eta jarraipen-ildo berriak

Kontuan hartzeko

Etengabeko ebaluazioa eta egokitzena


Plan estrategiko hau dokumentu bizia da: ez da behin betiko marko itxi bat, baizik eta etengabe berrikusten eta egokitzen den ibilbide-orri bat.

Ebaluazioa jarraitua izango da, eta urteko lanaren erritmoari eta errealitate soziolinguistikoari egokituta egingo da.

Horrek esan nahi du:

- Proiektu berriak txertatzeko aukera egongo dela, beharrak edo aukerak sortzen diren heinean.
- Arrakasta eta inpaktua frogatzen duten egitasmoak sendotu eta indartuko direla.
- Zentzua edo eragina galdu duten proiektuak berrikusi edo ezabatu egingo direla, baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko.
- Eragileen eta komunitatearen ahotsa izango dela etengabeko hobekuntzaren oinarria.
-

Helburua ez da soilik plan bat betetzea, baizik eta Aiaraldeko hizkuntza-ekosistemak eboluzionatzeko tresna malgua izatea: errealitatera hurbiltzen dena, aukerak baliatzen dituen eta bidean ikasitakoa kontuan hartzen duena.



AIARALDEKO **EUSKALGINTZAREN**

KONTSEILUA



2026-2030 PLAN ESTRATEGIKOA